



EL ABRA-GETXO KIROL PORTUA, S.A.
PUERTO DEPORTIVO EL ABRA-GETXO, S.A.



Muelle de Arriluze, Nº 1 - 1º Izda. - 48990 Getxo - Bizkaia - Tel. 944911354

EL ABRA-GETXO KIROL PORTUA S.A. SOZIETATEAREN KONTRATAZIOAREN JARRAIBIDE TEKNIKOA

AURKIBIDEA

ARRAZOIEN AZALPENA

JARRAIBIDE TEKNIKOAREN AURRETIAZKO ARGIBIDEA

I.- KONTRATAZIO JARRAIBIDEAREN XEDAPEN OROKORRAK

LEHENA	Xedea
BIGARRENA	Kanpo geratutako negozio eta kontratuak
HIRUGARRENA	Arauketa harmonizatuari loturiko kontratuak
LAUGARRENA	Kontratazioaren Organoak
BOSGARRENA	Kontratazio txostenak
SEIGARRENA	Administrazio Klausulen Pleguak eta Preskripzio Teknikoen Pleguak
ZAZPIGARRENA	Esleipen Irizpideak
ZORTZIGARRENA	Kontratazio Prozesua
BEDERATZIGARRENA	Kontratisten Profila
HAMARGARRENA	Kontratazioaren Formalizazioa
HAMAIKAGARRENA	Kontratuen efektuak eta iraungitzea

II. HARREMANDUTAKO DOKUMENTUAK.

I. GEHIGARRIA. KANPOAN UTZITAKO ZERBITZU ETA HORNIKUNTZA KONTRATUAK



EL ABRA-GETXO KIROL PORTUA, S.A.
PUERTO DEPORTIVO EL ABRA-GETXO, S.A.



Muelle de Arriluze, Nº 1 - 1º Izda. - 48990 Getxo -Bizkaia - Tel. 944911354

ARRAZOEN AZALPENA

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean SPKL) promulgazioak eta, batez ere, El Abra-Getxo Kirol Portua S.A. Sozietatea bezala Administrazio Publikoa izateko baldintza betetzen Ez duten Botere Esleitzaitelen gaineko haren aplikazioak, jardunbide berri batzuk hartzea suposatzen dute, legearen (gardentasuna, kalitatea-prezioa harreman hobereana erdiestea) helburuekin eta baita sozietatearen langileriaren gaitasunak eta zehaztapen legal berrien arteko harmonizazioarekin bat datorren kontratazioa erreztearren.

Hori dela eta SPKL-ko bosgarren behin-behineko Xedapenarekin, kontratazioaren barne Jarraibideak, bat etorritz, kontratazio teknikorako jarraibide bat iradokitzea beharrezkoa da, jardunbideak sinplifikatuko dituen eta kontratuaren prestakuntzari, txostenaren edukiei, botere esleipendun honen eta kontratazio organoaren aukera legalei eragingo dion edozer erregulatuko duena, hori guztia entitate honen ahalmen errearen arabera eta era proportzionatuan, kontratuzko eredu ezberdinetan eta kontratazio prozedimenduetan kudeaketa azkar eta eraginkor bat lortzeko.

JARRAIBIDE TEKNIKOAREN AURRETIAZKO ARGIBIDEA

Honako jarraibide teknikoak burutzeko, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen lege-xedapenak hartu dira aintzat, bai eta berberaren irakurketatik egin daitezkeen interpretazio propioak ere.

Era berean, informazio iturri izan dira ondorengo erreferentzia dokumentuak:

- *Los poderes adjudicadores no Administración pública ante la Ley de contratos del sector público (Ley 9/2017): Contratos menores y libertad de elección en los procedimientos de adjudicación*, Alejandro Blázquez Lidoy, Revista Práctica de Derecho, Mayo 2018
- *Udal Gida 2016, Separata de actualización de la guía Local*. IVAP.
- *Los contratos menores y el artículo 119 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público*. Teresa Moreo Marroig, Febrero 2018.
- *A propósito de la contratación de los poderes adjudicadores no Administración Pública en la ley 9/2017, de contratos del sector público. A propósito del debate sobre la desaparición de las instrucciones de contratación y de los procedimientos de adjudicación aplicables*. José María Gimeno Feliu, Observatorio de Contratación Pública, Febrero 2018.
- *La inseguridad jurídica en la adjudicación de contratos de los PANAPs*. Javier Vázquez Mantilla. Febrero 2018.
- *¿Desaparecen realmente las instrucciones de contratación para los PANAP en la Nueva Ley de Contratos del Sector Público?*. Boss Consulting. Febrero 2018.



EL ABRA-GETXO KIROL PORTUA, S.A.
PUERTO DEPORTIVO EL ABRA-GETXO, S.A.



Muelle de Arriluze, Nº 1 - 1º Izda. - 48990 Getxo -Bizkaia - Tel. 944911354

I.- KONTRATAZIO JARRAIBIDEAREN XEDAPEN OROKORRAK

Lehena.- Xedea

Honako jardunbideari lotutako kontratuak dira, EL ABRA-GETXO KIROL PORTUA S.A. SOZIJETATEAK (AGKPS aurreratzean) hirugarrengoeekin ondasunak (hornikuntza), zerbitzuak, lanak, bai eta obra esleipenak eta zerbitzu esleipenak eskuratzearren egin litzakeen kostubidezko kontratuak, haren izaera juridikoa edozein izanda ere.

Kontratu batek kostubidezko izaera duela ulertuko da kontratistak era zuzenean edo zeharkakoan nolabaiteko onura ekonomikoa lortuko duen kasuetan.

Kontratuen xedeak zehatza izan beharko du, ase nahi diren behar edo funtzionaltasunen arretan definitu ahal izango dira, kontratua soluzio bakarrera mugatu beharrik gabe.

Ezin izango da kontratu bat berberaren zenbatekoa murriztu eta hala publizitateari dagozkion baldintzak edo dagozkion esleipen jarraibideari dagozkionak ekiditeko zatikatu.

Kontratuaren izaerak edo kontratuaren xedeak hala baimenduz gero, haren zati bakoitza era independentean garatzea aurreikusi beharko da, sailetan banatuz.

Hala ere, kontratu organoak kontratuaren xedea sailetan ez banatzeko aukera izango du beti ere, hala egiteko arrazoi baliodunak existitzen badira, txostenean behar bezala justifikatu beharko direlarik.

Bigarrena.- Kanpo geratutako negozioak eta kontratuak

1. Honako barne kontratazio jardunbidetik kanpo geratzen dira ondorengo negozio eta harreman juridikoak:

a) Ondasun higiezinak, balio negoziagarrien eta jabetza ukiezinak salerosketa-, dohaintza-, trukaketa-, alogera-kontratuak eta antzeko negozio juridikoak, ordenagailu programenak ez badira eta zerbitzu edo hornikuntza-kontratuak ez badira, halakoak kontratu pribatuak izango baitira eta ondareari buruzko legeriak arautuko baititu.

b) Kontratu hauetan soilik Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean SPKL) erregulatutako ohiko kontratuei dagozkien prestazioak baino ezingo dira barne hartu, berberen balioa ez bada zenbateko osoaren 100-eko 50-a baino altuagoa eta, aldi berean, ondasun kontratuaren berezko prestazioarekin lotura eta osagarritasun harremanak mantentzen badituzte.

c) Balioen edo Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2004ko apirilaren 21ean emandako 2004/39/CE Zuzentarauak definitutako zentzua duten beste finantza tresna batzuen emisio, salerosketa edo transferentziarekin zerikusirik duten finantza zerbitzuei dagozkien kontratuak. Era berean kanpo geratzen dira Espainiako Bankuak eskainitako zerbitzuak eta Finantza Egonkortasunerako Europako Funtsaren eta Egonkortasunerako Europako Mekanismoarekin egindako operazioak eta maileguen kontratazioa eta altxortegi operazioak, beste balio edo finantza instrumentu



EL ABRA-GETXO KIROL PORTUA, S.A.
PUERTO DEPORTIVO EL ABRA-GETXO, S.A.



Muelle de Arriluze, Nº 1 - 1º Izda. - 48990 Getxo - Bizkaia - Tel. 944911354

batzuen igorpen, erosketa eta transferentziekin harremana izan ala ez.

- d) Lan legeriak erregulatutako kontratuak.
 - e) Zerbitzu publiko bat eskaintzean datzaten harreman juridikoak, non erabiltzaileek tarifa, tasa edo aplikazio orokorreko salneurri publiko bat ordaindu behar duten.
 - f) Kontziliazio eta arbitraje zerbitzuei dagozkien kontratuak
 - g) Sektore publikoko entitate bat ondasun edo eskubideak eman edo zerbitzuren bat ematera behartzen duten kontratuak.
 - h) Entitate pribatuek emandako zerbitzu soziala, beti ere hura kontratu publikorik egin beharrik gabe, beste batzuen artean, zerbitzu hauen finantzaketa edo lizentzia edo baimenen esleipenaren bidez, esleipen ahalmendunak aurretiaz ezarritako baldintzak betetzen dituzten entitate guztiei, muga edo kuotarik gabe, eta sistema honek publizitate nahikoa bermatu dezala eta gardentasun eta ez-diskriminazio printzipioei egokitu dadila.
 - i) Xede, sektore publikoetako zentroetan, Administrazioaren zerbitzura dagoen langileriarentzako formakuntza edo perfektionamendu ikastaro gisa aurrera eramandako ekintzak dituzten kontratuak edo mintegi, mahai-inguru, biltzar, kolaborazio edo antzeko beste edozein ekintzak, beti ere ekintza horiek pertsona fisikoek burututakoak badira, SPKL-ko xedapenak ez dira kontratuaren prestakuntzan eta esleipenean aplikagarriak izango.
 - j) Era berean, SPKL-ko 4. eta 11. artikuluetan aipatutako kontratu guzti haiek.
2. Proporzionaltasun printzipioen eta gizarte honen baliabide eskuragarriak aplikatuz, bai eta tipologia eta urteko zenbatekoa, honako barne kontratazio jardunbidetik kanpo geratzen dira II. Gehigarrian azaltzen eta justifikatzen diren zerbitzu edota hornikuntzak.

Hirugarrena.- Arauketa harmonizatuari loturiko kontratuak

Arauketa harmonizatuari loturiko kontratuak dira haien zenbatekoa ondorengoaren berdina edo altuagoa duten lan, hornikuntza, zerbitzu lan emate eta zerbitzu emate kontratuak:

- 5.448.000 €, BEZ-a gabe, lan, lan emate eta zerbitzu emate kontratuetan.
- 221.000 €, BEZ-a gabe, zerbitzu eta hornikuntza kontratuetan.

Hala ere, ez dira arauketa harmonizatuari loturikotzat hartuko, haien balio estimatua edozein izanda ere, honako kontratuak:

Xede, ondorengo zerbitzu judizialeko edozein dituztenak:

1. Prokuradore edo abokatu batek egin dezakeen bezero baten ordezkaritza eta defentsa lana, Estatu batean aurrera eramandako arbitraje edo kontziliazioa edo instantzia internazional baten aurrean gauzatuako arbitraje edo kontziliazioa izanda ere, edo Estatu baten autoritate publikoen edo



EL ABRA-GETXO KIROL PORTUA, S.A.
PUERTO DEPORTIVO EL ABRA-GETXO, S.A.



Muelle de Arriluze, Nº 1 - 1º Izda. - 48990 Getxo - Bizkaia - Tel. 944911354

jurisdikzio organoen edo instituzio internazional baten aurrean gauzatutako prozedimendu judiziala izanda ere.

2. Aurreko atalean aipatutako prozedimendu baten prestakuntza gisa jasotako aholkularitza juridikoa, edo aholkularitzara joarazten duen gaia prozedimendu horien objektu izateko probabilitate altu bat existitzen denean, beti ere, aholkularitza abokatu batengandik gauzatzen bada.

3. Notario publiko baten aurrean aurkeztu beharreko dokumentuen egiaztapen eta baimentze zerbitzuak.

4. Luzatutako zerbitzu juridikoak, administratzaile edo tutore batek emandakoak badira, edo bestelako zerbitzu juridikoek emandakoak, zeinetan mailegatzailak organo jurisdikzional batek edo legeak izendatuak izan diren organo jurisdikzional horien ikuskapenaren menpe funtzio espezifikoak betetzeko.

5. Are aldizkako eran botere publikoaren jardutearekin harremana duten beste zerbitzu juridikoak.

6. Xede, defentsa zibila, babes zibila eta lan arriskuen prebentzioa duten zerbitzuak, irabazi asmorik gabeko organizazio edo elkarteek luzatuakoak eta ondorengo CPV kodeen barne aurkitzen direnak: CPV: 75250000-3, 75251000-0, 75251100-1, 75251110-4, 75251120-7, 75252000-7, 75222000-8; 98113100-9; 85143000-3, herientzako anbulantzia garraio-zerbitzuak izan ezik.

Laugarrena.- Kontratazio organoak

Kontratazio organoa, tratatuko den kontratuaren balio estimatuaren arabera izango da, kontratu mota guztientzat ondorengo eran desberdinduz (obra, hornikuntza, zerbitzu, obra kontzesiozko eta zerbitzu kontzesiozko kontratuak):

- Administrazio Kontseilua: 300.000 €-tik gorako zenbatekoak.
- Sozietateko Zuzendari Nagusia eta Idazkaria baterako eran: 299.999 €-tarainoko zenbatekoak.

Bosgarrena.-Kontratazio txostenak

1. Justifikazioa

Ondorengo zenbateko mugatuko kontratuak barne hartu gabe, ikus bedi 4. atala:

- Zerbitzu eta hornikuntza kontratuak, zeinen balio estimatua 15.000 + BEZ den.
- Obra kontratuak, zeinen balio estimatua 40.000 + BEZ den.

Kontratuen gauzatzeak dagokion txostenaren aurretiazko tramitazioa beharko du, kontratazio organoak hari ekingo diolarik behar eta baliabide gutxiegitasun txostena (01.INF) onartuz, berberak kontratugilearen profilean argitaratua izan beharko duelarik, haren onarpenaren erabakiarekin batera.

AGKPS-ak ezingo ditu haren helburuen betetze eta gauzatzerako beharrezkoak diren kontratuak baino egin.

Jomuga hartarako, proiektatutako kontratuaren bidez erantzun nahi diren beharren izaerak eta



EL ABRA-GETXO KIROL PORTUA, S.A.
PUERTO DEPORTIVO EL ABRA-GETXO, S.A.



Muelle de Arriluze, Nº 1 - 1º Izda. - 48990 Getxo - Bizkaia - Tel. 944911354

hedapenak, bai eta haiek asetzeko prozedimendu ireki, ireki sinplifikatu, mugatu, negoziazio eta elkarrizketa kompetitiboa dituen kontratuaren xede eta edukien egokitasunak, zehaztasunez definituak izan behar dute, 01.INF. txostenean jasoz, haren esleipenera bideratutako prozesuari ekin aurretik.

2. Hastapena

SPKL-ko 116. artikularekin bat etorriz, 01.INF.-an behar bezala justifikatuko dira:

- a) Lizitazio prozeduraren aukeraketa.
- b) Parte-hartzaileei eskatuko zaien sailkapena.
- c) Kaudimen tekniko edo profesionalaren, eta ekonomiko eta finantzazkoaren irizpideak, eta kontratua esleitzeko kontuan hartuko diren irizpideak, hala nola berbera gauzatzeko baldintza bereziak.
- d) Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, dagokion BEZ-aren banaketa adieraziz.
- e) Kontratuaren balio estimatua, hura osatzen duten kontzeptu guztien adierazpenarekin, beti ere existitu litezkeen lan kostuak barne hartuz.
- f) Dagozkion prestazioak kontratatuz ase nahi den AGKPS-ren beharra; hala nola hark kontratuaren xedearekin duen harremana, zuzena, argia eta proportzionala izan beharko duena.
- g) Zerbitzuen kontratuetan, baliabide gutxiegitasun txostena.
- h) Kontratuaren xede diren atalen banaketa edo ez-banaketa haren justifikazioarekin batera.

3. Onarpena

01.INF. txostena kontratazio organoari aurkeztu eta gero, honek ebazpen motibatua igorriko du berbera onartuz eta esleipen prozedimenduaren irekierari ekinez. Ebazpen hau kontratugilearen profilean argitaratuko da.

4. Zenbateko mugatuko obra, zerbitzu eta hornikuntzen kontratuak kontratazio txostena

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeko (SPKL) Hirugarren Liburuko (Sektore publikoko beste erakunde batzuen kontratuen ingurukoa), I Tituluko (Herri-administrazio ez diren botere esleitzzaileen kontratuak), 316. (Erregimen juridikoa), 317. (Arauketa harmonizatuaren menpeko kontratuen prestakuntza eta esleipena) eta 318. (Arauketa harmonizatuaren menpe ez dauden kontratuen esleipena) artikuluekin bat etorriz, 40.000 eurotik beherako balio estimatuko kontratuak direnean, obra kontratuak, obra kontzesiozko eta zerbitzu kontzesiozko kontratuen kasuan, edo 15.000 eurotik beherakoak zerbitzu eta hornikuntza kontratuen kasuan, hurrengo ezartzen da:

1. Zuzenean kontratuaren xede den prestazioari erantzuteko gaikuntza profesionala duen edozein enpresariri esleitu ahal izango zaio;
2. ez zaizkiko prestakuntza arauak exijituko (SPKL-ko 115etik 130ra bitarteko artikulua);
3. soilik esleipen arauak exijituko zaizkio (SPKL-ko 115etik 130ra bitarteko artikulua);
4. ondorioz:
 - a) Sozietateak dituen giza baliabideak aintzat hartuz baliabide gutxiegitasun txostena, ez da halabeharrezkotzat, ez galdagarritzat hartzen zerbitzuen kontratuen kasuan (SPKL-ko 116.4 artikuluan



EL ABRA-GETXO KIROL PORTUA, S.A.
PUERTO DEPORTIVO EL ABRA-GETXO, S.A.



Muelle de Arriluze, Nº 1 - 1º Izda. - 48990 Getxo - Bizkaia - Tel. 944911354

adierazia).

- b) Ez da halabeharrezkotzat, ez galdagarritzat hartzen espedientearen onarpen txostena (SPKL-ko 117 artikuluan adierazia).
 - c) Ez da halabeharrezkotzat, ez galdagarritzat hartzen ezta ere kontratuaren beharra bultzatzen duen organoaren txostena.
 - d) Ez da halabeharrezkotzat, ez galdagarritzat hartzen honako klausularen xede diren kontratuak, hiru hilabetetik behin kontratugilearen profilean argiratatzea.
 - e) Honako klausularen xede diren kontratuen 101. artikuluekin bat etorriz, ez da urtebeteko iraupeneko epea muga bezala ezarriko, ezta luzapen posibleak ere.
5. Haren tramitaziorako hurrengo Harpidetza ezinbesteko izango da (02. INF):
- a) Ez dela kontratuaren xedea eraldatzen ari kontratazioaren arau nagusiak ekiditearren (ez zatikatzea, SPKL-ko 99.2 artikulua).
 - b) Kontratistak ez duela osotara 15.000 euroko zenbatekotik gora batzen dituzten kontratu bat edo gehiago harpidetu zerbitzu eta hornikuntzaren kasuan eta 40.000 eurotik gora batzen dituztenak urtebeteren buruan (ez esleipen metatua).
 - c) Obren kontratuetan, aurrekontua arau zehatzek hala behar izatean kalterik jasan gabe
 - d) Onartutako faktura.
6. SPKL-ko 63. eta 335. artikuluekin bat etorriz informazioa hiru hileko bakoitzean igorriko da fiskalizazio organora (Eskualdeko esku-hartzea) 5.000 euro + BEZ-a zenbatekotik gorako kontratuetarako eta bigarren klausulako 2. atalean aipatutako kontratuetarako.

Seigarrena.- Administrazio Klausulen Pleguak eta Preskripzio Teknikoen Pleguak

Kontratu guztietan – bosgarren klausulan adierazitako kontratuetan izan ezik – kontratuaren ezaugarriak ezartzen dituzten baldintzen plegu bat existitu beharko da.

1. Administrazio klausula partikularren plegua

Administrazio klausula partikularren pleguak 01.INF.-arekin batera onartu beharko dira, eta beti ere kontratuaren lizitazioa baino lehen, edo honakoa ez existitzeko kasuan haren esleipena baino lehen.

Gerora soilik izatezko akats edo akats aritmetiko edo materialak aldatu ahal izango dira. Beste kasuetan, pleguaren eraldaketak ekintzen atzeraegitea dakar.

Administrazio klausula partikularren pleguetan honakoak jasoko dira:

- a) Kontratuaren kaudimen eta esleipen irizpideak;
- b) Kaudimen, esleipen edo betearazpenerako baldintza berezi gisa irizpidetzat ezarritako kontsiderazio sozial, laborar eta inguruneak;
- c) Kontratuaren parteen eskubideen eta betebeharren paktu eta baldintza definitzaileak;
- d) Kontratuaren lagatzearen aurreikuspena, berbera posible ez den kasuetan izan ezik;
- e) Esleitzzaileak ezarritako Hitzarmen Kolektibo sektorialarekin bat etorriz langileen soldata-



EL ABRA-GETXO KIROL PORTUA, S.A.
PUERTO DEPORTIVO EL ABRA-GETXO, S.A.



Muelle de Arriluze, Nº 1 - 1º Izda. - 48990 Getxo -Bizkaia - Tel. 944911354

baldintzak betetzeko duen betebeharra;

Kontratu mistoen kasuan, erregimen juridiko aplikagarria zehaztuko da, haren betetze eta amaierari dagokionez, eta haietan bat eginiko prestazio ezberdinetan aplikagarri diren arauei erantzunez.

Administrazio klausula partikularren pleguek prestazioarekiko arauhauste edo berberaren ezaugarri eragin diezaioketen arau-betetze ezegokietako kasuetarako oinazeak ezarri ahalko dituzte, batez ere esleipen irizpideak definitzeko kontuan izan diren kasuetan, edo ezaugarri hauen aldizkako legebetetzeari kontratuzko funtsezko betebeharra egotzen zaionean.

Plegu hori kontratazio organoak garatuko du, AGKPS-aren zerbitzu juridikoen eta Getxoko Udalaren laguntzarekin, eta berbera kontratazio organoak onartua izango da. Organo honek baimendu beharko dituen kontratazio ugarietarako plegu eredu erabilera baimendu ahal izango du.

Kontratuak administrazio klausula partikularren pleguetara egokituko dira, zeinetan klausulak berberen atal osagarritzat hartzen diren.

2. Preskripzio Teknikoen Plegua

Preskripzio Teknikoen Pleguak 01.INF.-arekin batera onartu beharko dira, eta beti ere kontratuaren lizitazioa baino lehen, edo honakoa ez existitzeko kasuan haren esleipena baino lehen. Aurkezpenaren garapena zuzendu beharko dituzten preskripzio tekniko zehatzak barne hartzen dituzten plegu eta dokumentuek, kalitateak, baldintza sozialak eta ingurumenezkoak definitu beharko dituzte.

Gerora soilik izatezko akats edo akats aritmetiko edo materialak aldatu ahal izango dira. Beste kasuetan, pleguaren eraldaketak ekintzen atzeraegitea dakar.

Pleguen onarpena kontratazio organo arduradunei egokituko zaie laugarren klausulan adierazitako kontratuaren balio estimatuaren arabera.

Zazpigarrena.- Esleipen irizpideak

Kontratazioen pleguetan hurrengo zehaztapenak jasoko dira, aplikagarri izango den kontratazio mota eta prozedimenduaren arabera.

1. Kontratuen esleipena, kalitate-preziora harreman hobereanean oinarritutako esleipen irizpide aniztasun bat erabiliz eramango da aurrera.

Espedientean aurretiazko justifikazioarekin, kontratuak prezio edo kostuaren, bizi-zikloaren kostuaren kalkulua esaterako, oinarriaren gaineko kostu-eraginkortasun harremanari erantzungo dion planteamendu batean oinarritutako irizpideei jarraituz esleitu ahal izango dira.

2. Kalitate-preziora harremana irizpide ekonomiko eta kualitatiboen arabera ebaluatuko da.

Kontratazio organoak kalitate-preziora harremana ebaluatzeko ezarritako irizpideek kontratuarekin harremana duten ingurugiroaren aspektuak edo aspektu sozialak jaso ahal izango dituzte, beste



EL ABRA-GETXO KIROL PORTUA, S.A.
PUERTO DEPORTIVO EL ABRA-GETXO, S.A.



Muelle de Arriluze, Nº 1 - 1º Izda. - 48990 Getxo -Bizkaia - Tel. 944911354

batzuen artean, ondorengoak izan ahalko direlarik:

- a) Kalitatea, balio teknikoa, ezaugarri estetiko eta erabilgarritasunezkoak barne, erabilerraztasuna, diseinu unibertuala edo pertsona erabiltzaile guztientzako diseinua, ezaugarri sozialak, ingurumenezkoak eta aurrerakoiak, eta komertzializazioa eta haren baldintzak;
- Ingurugiroaren ezaugarriek, beste batzuen artean, ondorengo helburuei egin diezaiekete erreferentzia:
 - Negutegi efektuaren gasen emisioen murrizketa;
 - efizientzia eta aurrezpen energetikorako neurriei eta jatorri, iturri berriztagarriak dituzten energien erabilerari kontratua gauzatu bitartean;
 - eta kontratua gauzatzearen eraginez eraginik jasan lezaketen baliabide naturalen mantenimendu eta hobekuntzari.
 - Kontratuaren ezaugarri sozialek, beste batzuen artean ondorengo helburuei egin diezaiekete erreferentzia:
 - Desgaitasunak dituzten pertsonen, behartsuen edo talde kalteberetako pertsonen integrazio soziala bultzatzeari, kontratua gauzatzeko egokitutako pertsonen artean eta, orokorrean, pertsona ezgaituen eta bazterketa-arriskuan daudenen lan-txertaketa eta txertaketa soziala;
 - Azpikontratazioa Enplegurako Zentro Bereziekin edo txertaketa-enpresak;
 - kontratuaren gauzatzearan aplikagarriak diren berdintasun planak eta, orokorrean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna;
 - emakumeen kontratazioa bultzatzea;
 - bitzita laboral, pertsonal eta familiarren uztartzea
 - lan baldintzen eta soldaten baldintzen hobekuntza;
 - egonkortasuna enpleguan; kontratua gauzatzeko pertsona kopuru handiagoaren kontratazioa;
 - lanean osasunaren eta segurtasunaren formakuntza eta babesa;
 - kontratu-prestazioan irizpide etiko eta ardura sozialezkoak aplikatzea;
 - berdintasunezko komertzio batean oinarritutako hornikuntzari edo produktuen erabilerari erreferentzia egiten dioten irizpideak kontratuaren gauzatzearan.
- b) Kontratura atxikitutako eta berbera gauzatuko duen langileriaren antolakuntza, koalfikazioa eta esperientzia, beti ere, langileria honen kalitateak hura aurrera eramatea era esanguratsuan eragin badezake.
- c) Saldu osteko zerbitzua eta laguntza teknikoa eta berbera gauzatu beharreko azken epea, entrega prozesua, entrega epea edo exekuzioa eta ordezkoei eta haien segurtasunari loturiko konpromezua bezalako entrega baldintzak.
- d) Irizpide kualitatiboek, kostuekin harremana duen irizpide batekin batera joan beharko dute, kontratazio organoaren aukeran, prezioa edo bizi-zikloaren kostua bezala errentagarritasunean oinarritutako planteamendu bat izan ahalko dena.

3. Esleipen irizpide bat baino gehiagoren aplikazioa

Esleipen irizpide bat baino gehiagoren aplikazioa emango da hurrengo kasuetan:



EL ABRA-GETXO KIROL PORTUA, S.A.
PUERTO DEPORTIVO EL ABRA-GETXO, S.A.



Muelle de Arriluze, Nº 1 - 1º Izda. - 48990 Getxo -Bizkaia - Tel. 944911354

- a) Haien proiektu edo aurrekontuak aurretiaz ezarri ezin izan diren eta hautagai edo lizitatzailleek aurkeztu beharreko kasuan.
- b) Kontratazio organoak prestazioaren definizioak beste soluzio tekniko batzuen edo aurrera eramateko epearen murrizketaren bidez hobekuntzak jasan ditzakeela kontsideratzen badu.
- c) Haiek gauzatzeko organo, organismo edo entitate kontratugileak material edo baliabide osagarriak, zeinen erabilera egokiak kontratisten aldetik berme bereziak behar dituen, erabiltzea baimentzen duen kasuetan.
- d) Teknologia bereziki aurreratuaren erabilera behar duten haietan edo haiek aurrera eramatea bereziki konplexua den kasuetan.
- e) Obren eta zerbitzuen kontzesio kontratuetan.
- f) Hornikuntza kontratuak, ez bada lortu beharreko produktuak erabat definituta daudela eta aurkezpen epeak eraldatzeko edo kontratuan inolako aldaketarik gehitzeko aukerarik ez dagoela, ondorioz prezioa esleipenerako faktore erabakigarri bakarria izanik.
- g) Zerbitzuen kontratuak, ez bada prestazioak teknikoki erabat definiturik daudela eta aurkezpen epeak eraldatzeko edo kontratuan inolako aldaketarik gehitzeko aukerarik ez dagoela, ondorioz prezioa esleipenerako faktore erabakigarri bakarria izanik.
- h) Xede izaera intelektualeko prestazioak dituzten zerbitzuen kontratuetan, ingenieritza eta arkitektura bezalako zerbitzuak, eta zerbitzu sozialen prestazio-kontratuetan, pertsona behartsuen edo talde kalteberetako pertsonen integrazio soziala kontratua gauzatzeko egokitutako pertsonen artean, bereziki lan-merkatuan txertatzeko arazoak dituzten pertsonen enplegua bultzatzen dutenean edo zerbitzu sozial, osasun zerbitzu edo hezkuntza zerbitzuen, edo esku-lanaren zerbitzu intentsiboen kontratuetan, prezioak ezingo du esleipenerako faktore erabakigarri bakarria izan. Era berean, segurtasun pribatuko zerbitzuen kontratuen kasuan esleipen irizpide bat baino gehiago aplikatu beharko da.
- i) Haiek gauzatzean ingurumenen inpaktu esanguratsua eragin dezaketen kontratuak, zeinen esleipenean ingurumen-baldintza neurgarriak baloratuko diren, esaterako ingurumen-inpaktu urriagoa, ura eta energiaren eta materialen aurrezpen eta erabilera eraginkorra, ingurumenaren bizi-zikloaren kostua, ekoizpen ekologikoaren prozedimendu eta metodoak, hondakinen sortze eta kudeaketa edo material birziklatuen edo berrerabilien edo material ekologikoen erabilera.

4. Kontratazio prozedimendu arruntak: irekia eta mugatua

Xede izaera intelektualeko prestazioak dituzten zerbitzu kontratuen prozedimenduetan, ingeniaritza eta arkitektura zerbitzuak bezala, hala nola SPKL-ko IV. Gehigarriko zerbitzu kontratuetan, hala nola xede izaera intelektualeko prestazioak dituzten kontratuetan, kalitatearekin loturiko irizpideek, gutxienez egokitu daitekeen puntuazioaren ehuneko 51-a suposatuko dute.

5. Prozedimendu ireki sinplifikatua

Obretan balio estimatua 2.000.000 eurotako edo gutxiagokoa, eta hornikuntza eta zerbitzuetan 100.000 eurotako edo gutxiagokoa duten kontratuetan ondorengo irizpideak jarrai daitezela:

- a) ez dago balio-iriziz ebalua litekeen bat ere ez edo,
- b) egotekotan, haien haztaperak ez du zenbateko osoaren ehuneko hogeita bosta gainditzen,



Muelle de Arriluze, Nº 1 - 1º Izda. - 48990 Getxo - Bizkaia - Tel. 944911354

- c) kontratuak xede izaera intelektualeko prestazioak, ingeniariaritzaren eta arkitektura zerbitzuak bezala, dituen kasuan izan ezik, non haren haztapenak ezingo duen zenbateko osoaren ehuneko berrogeita bosta gaitu.

6. Prozedimendu ireki supersimplifikatua

Obretan balio estimatua 80.000 eurotako edo gutxiagokoa, eta hornikuntza eta zerbitzuetan 35.000 eurotako edo gutxiagokoa duten kontratuetan, ez bada xede, prozedimendu hau aplikagarria ez den izaera intelektualeko prestazioak dituztela, formulen aplikazio huts bitartez zenbatgarri diren esleipen irizpideak baino ez dira ezarriko.

7. Esleipen irizpideen baldintza orokorrak

Administrazio klausula partikularren pleguetan edo dokumentu deskribatzailean (lizitazio deialdiaren iragarpenean agertu beharko dena) ezarritako kontratuaren esleipenerako oinarri gisa balio behar duten irizpideak, ondorengo baldintzak bete beharko direlarik:

- a) Kasu guztietan kontratuaren xedeari loturik egongo dira. Esleipen irizpide bat kontratuaren xedeari loturik dagoela kontsideratuko da, kontratu horrek adierazitako edo jasotako eta hari jarraikiz gauzatu beharreko prestazioei erreferentzia egiten zaionean, haren edozein aspektutan eta haren bizi-zikloko edozein etapatan, ondorengo prozesuetan esku hartzen duten faktoreak barne:
- haren lekuan, obren, hornikuntzaren edo zerbitzuen produkzio, prestazio edo komertzializazioa, bereziki ekoizpen erei, ingurumenarekin loturiko prestazio edo komertzializazioa eta gizartearentzako jasagarri eta bidezkoak diren aintzat hartuz;
 - edo haren bizi-zikloko beste etapa baten prozesu zehatzetan, are faktore haiek bere substantzia materialaren parte ez direnean.
- b) Era objektiboan formulatuak izan beharko dute, berdintasuneko, ez-bazkterkeriazko, gardentasuneko eta proportzionaltasuneko printzipioak erabat errespetatuz, eta ez diote organo kontratugileari erabaki askatasun mugagaberik emango.
- c) Eskaintzek konpetentzia eraginkorreko baldintzetan ebaluatutako izateko aukera bermatu beharko dute eta lizitatuak lizitatuak lizitatuak informazioa eraginkortasunez egiaztatzea erretzen duten zehaztasunekin batera joango dira, esleipen irizpideak zein neurritan betetzen dituzten ebaluatutako helburuarekin. Zalantzarik egonez gero, lizitatuak lizitatuak informazioaren eta frogen zehaztasuna eraginkortasunez ziurtatu beharko da.

8. Hobekuntzak esleipen irizpide gisa

Esleipen irizpideen hobekuntzen definiziorako honako baldintzak bete beharko dira:

- a) Hauek zehaztasun nahikoa izan beharko dute. Baldintza hau betetzen dela kontsideratuko da, era haztatuan, zehaztasunez ondorengoak ezartzen direnean: berberen baldintza, muga, modalitate eta ezaugarriak, hala nola, kontratuaren xedearekiko duten ezinbesteko lotura.
- b) Edozein kasutan ezin izango zaio ehuneko 2,5-eko baliotik gorakoa egokitu.
- c) Hobekuntza bezala ulertzen dira, ondorioz, proiektuan eta preskripzio teknikoetan jasotzen direnei osagarri zaizkien prestazioak, haiek prestazio horien izaera edota kontratuaren xedea eraldatu



EL ABRA-GETXO KIROL PORTUA, S.A.
PUERTO DEPORTIVO EL ABRA-GETXO, S.A.



Muelle de Arriluze, Nº 1 - 1º Izda. - 48990 Getxo -Bizkaia - Tel. 944911354

ezingo dituztelarik.

Zortzigarrena.- Kontratazio Prozedimendua

Izaera orokorrarekin, honako kontratazio jarraibideko bosgarren klausulako 4. atalean jasotakoa izan ezik, eta azalduko diren salbuespenekin, kontratazio oro ondorengo prozedimenduaren menpe geratuko da:

1. Kontratazio eskaera:

- a) Kontratazio espedienteari hasiera emateko eskaeraren existentzia, zerbitzu-kontratuaren behar edo baliabide urritasunaren inguruko txostena eta kontratazio organoari (01.INF.) espedientearen onespenean eskaera, berberaren beharra, kreditu erabilgarriaren existentzia edo habilitazioa eta haren tramitaziorako aukeratutako prozedimendua zehaztuz.
- b) Kontratazio eskaerak kontrataziorako beharrezko izango diren zehaztasun teknikoak jaso beharko ditu, Preskripzio Teknikoen Plegua eta Administrazio Klausula Partikularren Plegua atxikituz. Pleguak exijitutako kalitateen definizioa, produktuen baldintzak, eta abarrekin prestazioa aurrera eramatea eraenduko duten preskripzioak jaso beharko ditu. Administrazio Klausula Partikularren Pleguak kontratuaren oinarritzko ezaugarriak ezarri beharko ditu.
- c) Kontratazio Organoarengandik egindako Kontratazioaren espedientearen, Pleguen eta Proiektuaren onarpenaren erabakia.

Honako jarraibideetako bosgarren klausularen 4. atalean azalduetako arauketa harmonizatuaren menpe ez dauden kontratuetatik bestelakoak direnen prestakuntza eta esleipenean, SPKL-ko III. Liburuko I. Tituluan ezarritako arauak aplikatuko dira, ondorioz, aurreikusitako edozein prozedimenduren jarraipena egin ahal izango da SPKL-ko II. Liburuko I. Tituluaren barnean I. Kapituluko 2. Atalean, zenbatekoa dela eta, publizitatearik gabe negoziatutako prozedimenduarena salbuespen izanik.

Arauaketa harmonizatuaren menpeko kontratuen prestakuntza eta esleipenean SPKL-ko II. Liburuko I. Tituluaren barnean I. Kapituluko 1. eta 2. ataletan ezarritako arauak aplikatuko dira.

Bederatzigarrena.- kontratugilearen Profila

AGKPS-ak eskusiboki interneten bidez hedatuko du haren profil kontratugilea, honako kontratazio jarraibideen bosgarren klausulako 4. atalean zehaztutakoetatik ezberdinak diren kontratazio espediente guztiei dagokion informazio guztia, bere ekintza kontratugilearekin lotura duten informazio eta dokumentuak batzen dituen elementu gisa gardentasuna eta eskuragarritasun publikoa bermatzeko.

Profil kontratugilerako sarrera dagokion plegu eta dokumentuetan jaso beharko da, hala nola

Sozietate Publiko El Abra-Getxo Kirol Portua, S.A. / Sociedad Pública Puerto Deportivo El Abra-Getxo, S.A.



EL ABRA-GETXO KIROI PORTUA, S.A.
PUERTO DEPORTIVO EL ABRA-GETXO, S.A.



Muelle de Arriluze, Nº 1 - 1º Izda. - 48990 Getxo - Bizkaia - Tel. 944911354

lizitazioaren iragarpenetan, honako kontratazio jarraibideetan jasotzen den bezala.

Kontratugilearen profilak Kontratazio Organoaren kontratazio ekintzei erreferentzia egiten dion edozein datu eta dokumentu hartu ahal izango ditu barne.

AGKPS-ak kontratazio publikoaren ekintza programatuko du, aurrekontu-ekitaldi batean edo urte anitzeko denboraldietan aurrera eramango duena eta kontratazio plana aurretiaz emango dute ezagutzera, aurretiazko administrazio kontseiluaren erabaki eta aurrekontuaren onespenerekin, behintzat arauketa harmonizatu baten menpe geratuko diren kontratu haiek jasoko dituen informazioaren iragarpen baten bidez.

Edozein kasutan, bai informazio orokorra, bai kontratazio organoarekin harremanetan jartzeko erabil litekeena jaso beharko ditu, esaterako:

- a) Kontakту gunea
- b) Telefono zenbakia
- c) Posta helbidea eta helbide elektronikoa
- d) Informazioa, berriak eta dokumentu orokorrak

Haien argitalpenak, kontratugilearen profilean argitaratua izatea exijitzen duten kontratuen informazioari dagokionez, gutxienez ondorengo informazioa argitaratu beharko da:

- a) Zerbitzuen kontratuetan behar eta baliabide gutxiegitasun txostena eta organo kontratugilearen onspen eskaera (01.INF), administrazio klausula partikularren plegua eta kontratua edo, behar denean, dokumentu baliokideak eraendu behar dituzten preskripzio teknikoaren plegua, eta espedientearen onspena.
- b) Kontratuaren xede zehatza, iraupena, kontratuaren balio estimatua, oinarrizko lizitazio-aurrekontua eta esleipenaren zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne.
- c) Aurretiazko informazioaren, lizitazioen deialdienak, esleipenaren eta kontratuen formalizazioen iragarpenak, eraldaketa eta justifikazio iragarpenak, proiektuen konkurtsoen emaitzen iragarpenak, publizitaterik gabeko negozioren arauetan ezarritako salbuespenekin.
- d) Dagokionean, kontratua iragartzeko erabili diren bideak eta argitalpen horien estekak.
- e) Prozedimenduan parte hartzen duten lizitatzailleen identifikazio zenbakia, hala nola, dagokion kontratazio prozedimenduaren akta guztiak, eskaintza bakoitzaren balio-iritzi baten bidez zenbatgarriak diren esleipen irizpideen balorapen txostena, hala badagokio, anormaltasun susmopean sartutako eskaintzen informea eta, edozein kasutan, kontratuaren esleipenaren erabakia.

Era berean kontratugilearen profilean argitaratu beharko dira kontratua ez egiteko edo ez esleitzeko erabakia, esleipen prozedimenduaren atzera-egitea, huts deklarazioa, hala nola errekurtsioak ezartzea eta errekurtsio ezarpena dela eta kontratuen behin-behineko etendura.

Era berean kontratugilearen profilean argitaratu beharko dira bertan behera utzitako prozedimenduak, kontratazio organoei lagunduko dioten kontratazio mahai-inguruen konposizioa, hala nola, hala beharrezko den prozedimenduetan, esleipen irizpideen aplikaziorako aditu-batzordearen edo



EL ABRA-GETXO KIROL PORTUA, S.A.
PUERTO DEPORTIVO EL ABRA-GETXO, S.A.



Muelle de Arriluze, Nº 1 - 1º Izda. - 48990 Getxo - Bizkaia - Tel. 944911354

organismo aditu teknikoen izendapena.

SPKL-ko 154.7 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, kontratua gauzatzeari dagozkion datu zehatz batzuk ez argitaratzea posible izango da. Edozein kasutan, organo kontratugileak aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat etorritik informazioaren bat kanpo uztea erabakitzen duen bakoitzean espedientean justifikatu beharko du.

Hamargarrena.- Kontratuaren formalizazioa

Kontratazio oro, izaera orokorrarekin, idatziz formalizatu beharko da, dagokion kontratua, beharrezko dokumentu guztien bidalketa aurretik eginez.

Kontratazio jarraibideko bosgarren klausulako 4. atalean adierazitakoarekin bat datozen kontratazioak idatziz formalizatzeko betebeharra salbuesten da. Kasu hauetan, ezinbestekoa izango da idatzizko aurrekontu baten existentzia, Organo Kontratugileak onetsia izan beharko duena honako jarraibideetako laugarren klausulan ezarritakoaren arabera.

Aldizkari edo bestelako edozein euskarri duten argitalpenetako harpidetzak, hala nola, datu base espezializatueterako sarrera kontratazioak, eta ezinbesteko suertatzen diren neurrian, aurretik aipatutako harpidetza edo kontratazioetarako beharrezko zerbitzuen kontratazioa, haien zenbatekoa edozein dela ere gauzatu ahal izango dira, beti ere arauketa harmonizatuaren menpeko kontratu izaera badute, kontratazio jarraibideko bosgarren klausulako 4. atalarekin bat etorritik eta hornitzaileek ezarritako baldintza orokorrekin erantzunez, ordainketa formulari dagozkionak barne hartuz. Prezioaren ordainketa, kasu hauetan, kontratu hauek eraentzen dituzten baldintzetan aurreikusten den eran egingo dira, ordainketa entregaren edo prestazioa egin aurretik burutzea onargarria izanik, beti ere honek merkatuaren ohiko erabilerari erantzuten badio.

Kontratuak Zuzendariak edo behar bezala baimendutako pertsonak sinatu beharko dituzte.

Hamaikagarrena.- Kontratuen efektuak eta iraungitzea

1. IRAUPEN EPEA. Kontratuen iraupena prestazioen izaera, haren finantzaketaren ezaugarriak eta aldizka berberak konkurrentziarekin jartzeko beharra kontuan hartuz ezarritako da. Kontratuak luzapen bat edo gehiago aurreikusi ahal izango ditu, beti ere haren ezaugarriak aldaketarik gabe mantentzen badira haietan zehar eta haren esleipenerako konkurrentzia kontratuaren gehienezko iraupena kontuan izanik egin bada, luzapen epeak barne hartuz.
2. EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK. Administrazio klausula partikularren pleguan gutxienez SPKL-aren 202. artikuluan jasotako izaera sozialeko, etikoko, ingururigoarekin loturiko betearazpen baten ezarpena derrigorrezkoa izango da.
3. ERALDAKETAK. Lizitazio bakoitzerako Pleguek arauketa ezberdin bat ezartzen ez badute,



EL ABRA-GETXO KIROL PORTUA, S.A.
PUERTO DEPORTIVO EL ABRA-GETXO, S.A.



Muelle de Arriluze, Nº 1 - 1º Izda. - 48990 Getxo - Bizkaia - Tel. 944911354

kontratuen eraldaketen baldintzak eta ondorioak SPKL-aren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoak izango dira.

4. Kontratuak eraldatuak izan ahalko dira, beti ere aukera hau espreski ohararazi bada pleguetan edo lizitazioaren iragarpenean, eta egin daitekeen berberaren erabilera era argi, doi eta zalantzarik gabean zehaztu bada, hala nola, eraldaketen hedapen eta mugaketa, zeinak gehienez eraginik izango lukeen kontratuaren prezioaren portzentaiaren zehaztapenarekin espreski adostu daitezkeen, eta horretarako jarraitu beharko den prozedimendua.
5. Kontratuen eraldaketen baimen-ematea esleitutako kontratuari dagokion organo kontratugile berberari dagokio. Dena den, Administrazio Batzordeak Zuzendaria hark esleitutako kontratuei eragin diezaieketen eraldaketa guztiak baimentzeko ahalmentzen du.
6. PREZIOEN BERRIKUSKETA. Izaera orokorrarekin ez da prezioen berrikusketarik aintzat hartuko, ez bada Pleguak hala aurreikusten duela.
7. ORDAINKETAK HORNITZAILEEI. Pleguak beste zerbait esaten ez badu, eskuarki hornitzaileei ordainketak transferentzia bidez eta hogeita hamar eguneko epearen barnean egingo zaizkie.
8. BERME EPEA. Pleguak beste zerbait esaten ez badu kontratazioen berme epea urtebetekoa izango da harreratik, produktu edo zerbitzuaren erreseerbarik gabe.
9. ERABAKIAREN ARRAZOIAK. Lizitazio bakoitzaren Pleguak beste zerbait esaten ez badu, kontratuen erabakiaren arrazoiak izango dira, SPKL-aren 211, 245, 306 eta 313. artikulua, haien konkurrentziak aurretiaz deklaratu izan beharko duelarik.

II. LOTURA DUTEN DOKUMENTUAK.

01.INF.) BEHAR ETA BALIABIDE GUTXIEGITASUN TXOSTENA ETA ORGANO KONTRATUGILEARI
ESPEDIENTEAREN ONESPENERAKO ESKAERAREN TXOSTEN-EREDUA (art. 116 LCSP)

0.2.INF.) KONTRATUAREN EZ-ZATIKATZEAREN ETA ESLEITZE EZ-METATUAREN DEKLARAZIO EREDUA
(SPKL-ko 118. eta 316tik 319ra bitarteko artikulua)



EL ABRA-GETXO KIROL PORTUA, S.A.
PUERTO DEPORTIVO EL ABRA-GETXO, S.A.



Muelle de Arriluze, Nº 1 - 1º Izda. - 48990 Getxo - Bizkaia - Tel. 944911354

I. GEHIGARRIA. KANPOAN UTZITAKO ZERBITZU ETA HORNIKUNTZA KONTRATUAK

Sozietate honen proportzionaltasun eta baliabide eskuragarrien aplikazioan, hala nola tipologia eta urteko zenbatekoan, honako barne-kontratazio prozedimendutik kanpo geratzen dira jarraian zehazten eta justifikatzen diren zerbitzu edo/eta hornikuntzak:

A. KANPO UTZITAKO ZERBITZUEN KONTRATUAK

- **Komunikazio zerbitzuak:**
 - **Telefonia finkoa:** Eskuragai telefono zenbaki eta kontratu bakarra dagoela aintzat hartuz, zeinen urteko zenbatekoak ez dituen 400 euro + BEZ/urteko gainditzen eta 4 urtetan 5.000 euro + BEZ baino gutxiagokoa izanik, kontratazio hau SPKL-aren zehaztapenen menpe jartzea ez da beharrezko ikusten, haien balio estimatua 15.000 + BEZ baino gutxiagokoak diren kontratuei dagozkien zehaztasunak salbuespen.
 - **Telefonogune zerbitzua:** 300 euro + BEZ/urteko gainditzen ez dituen urtebeteko kontratua dela aintzat hartuz eta 4 urtetan 5.000 euro + BEZ baino gutxiagokoa izanik, kontratazio hau SPKL-aren zehaztapenen menpe jartzea ez da beharrezko ikusten, haien balio estimatua 15.000 + BEZ baino gutxiagokoak diren kontratuei dagozkien zehaztasunak salbuespen.
 - **Telefonia mugikorra:** Eskuragai telefono zenbaki eta kontratu bakarra dagoela aintzat hartuz, zeinen urteko zenbatekoak ez dituen 400 euro + BEZ/urteko gainditzen eta 4 urtetan 5.000 euro + BEZ baino gutxiagokoa izanik, kontratazio hau SPKL-aren zehaztapenen menpe jartzea ez da beharrezko ikusten, haien balio estimatua 15.000 + BEZ baino gutxiagokoak diren kontratuei dagozkien zehaztasunak salbuespen.
- **Mantenimendua eta garbiketa:**
 - **Gas Galdara:** 120euro + BEZ/urteko gainditzen ez dituen urtebeteko kontratua dela aintzat hartuz eta 4 urtetan 5.000 euro + BEZ baino gutxiagokoa izanik, kontratazio hau SPKL-aren zehaztapenen menpe jartzea ez da beharrezko ikusten, haien balio estimatua 15.000 + BEZ baino gutxiagokoak diren kontratuei dagozkien zehaztasunak salbuespen.
 - **Bulegoaren garbiketa:** 450 euro + BEZ/urteko gainditzen ez dituen urtebeteko kontratua dela aintzat hartuz, kontratazio hau SPKL-aren zehaztapenen menpe jartzea ez da beharrezko ikusten, haien balio estimatua 15.000 + BEZ baino gutxiagokoak diren kontratuei dagozkien zehaztasunak salbuespen.
- **Informatika eta erreprografia:**
 - **Antibirusa:** 20 euro + BEZ/urteko gainditzen ez dituen urtebeteko kontratua dela aintzat hartuz eta 4 urtetan 5.000 euro + BEZ baino gutxiagokoa izanik, kontratazio hau SPKL-aren zehaztapenen menpe jartzea ez da beharrezko ikusten, haien balio estimatua 15.000 + BEZ baino gutxiagokoak diren kontratuei dagozkien zehaztasunak salbuespen.



Muelle de Arriluze, Nº 1 - 1º Izda. - 48990 Getxo - Bizkaia - Tel. 944911354

- **PC-aren Mantenimendua:** Noizean behineko zerbitzu bat dela aintzat hartuz kontratazio hau SPKL-aren zehaztapenen menpe jartzea ez da beharrezko ikusten, haien balio estimatua 15.000 + BEZ baino gutxiagokoak diren kontratuei dagozkien zehaztasunak salbuespen.
- **WEB Jabetza:** 350 euro + BEZ/urteko gaintitzen ez dituen urtebeteko kontratua dela aintzat hartuz eta 4 urtetan 5.000 euro + BEZ baino gutxiagokoa izanik, kontratazio hau SPKL-aren zehaztapenen menpe jartzea ez da beharrezko ikusten, haien balio estimatua 15.000 + BEZ baino gutxiagokoak diren kontratuei dagozkien zehaztasunak salbuespen.
- **Fotokopiagailua:** 50 euro + BEZ/urteko gaintitzen ez dituen 2022 urtera arteko iraupena duen renting (alokairu) kontratua dela aintzat hartuz eta 4 urtetan 5.000 euro + BEZ baino gutxiagokoa izanik, kontratazio hau SPKL-aren zehaztapenen menpe jartzea ez da beharrezko ikusten, haien balio estimatua 15.000 + BEZ baino gutxiagokoak diren kontratuei dagozkien zehaztasunak salbuespen.
- **Kanpo erreprografia:** Noizean behineko zerbitzu bat dela aintzat hartuz kontratazio hau SPKL-aren zehaztapenen menpe jartzea ez da beharrezko ikusten, haien balio estimatua 15.000 + BEZ baino gutxiagokoak diren kontratuei dagozkien zehaztasunak salbuespen.
- **Itzulpenak:**
 - **Itzulpenak:** Noizean behineko zerbitzu bat dela aintzat hartuz kontratazio hau SPKL-aren zehaztapenen menpe jartzea ez da beharrezko ikusten, haien balio estimatua 15.000 + BEZ baino gutxiagokoak diren kontratuei dagozkien zehaztasunak salbuespen.
- **Argitalpenak:**
 - **Argitalpen espezifikoak:** 350 euro + BEZ/urteko gaintitzen ez dituen urtebeteko kontratua dela aintzat hartuz eta 4 urtetan 5.000 euro + BEZ baino gutxiagokoa izanik, kontratazio hau SPKL-aren zehaztapenen menpe jartzea ez da beharrezko ikusten, haien balio estimatua 15.000 + BEZ baino gutxiagokoak diren kontratuei dagozkien zehaztasunak salbuespen.
- **Lan arriskuen prebentzioa eta mutualitatea:**
 - **Prebentzioa:** Zerbitzu hau lan-legedian arautua dago, beraz SPKL-aren aplikaziotik kanpo geratzen da.
 - **Mutualitatea:** Zerbitzu hau lan-legedian arautua dago, beraz SPKL-aren aplikaziotik kanpo geratzen da.
- **Aseguruak:**
 - **Bulego aseguru (bulego-anitzak):** 900 euro + BEZ/urteko gaintitzen ez dituen urtebeteko kontratua dela aintzat hartuz eta 4 urtetan 5.000 euro + BEZ baino gutxiagokoa izanik, kontratazio hau SPKL-aren zehaztapenen menpe jartzea ez da beharrezko ikusten, haien balio estimatua 15.000 + BEZ baino gutxiagokoak diren kontratuei dagozkien zehaztasunak salbuespen.
 - **Aholkularien eta Zuzendarien Aseguruak:** 2.300 euro + BEZ/urteko gaintitzen ez dituen



EL ABRA-GETXO KIROL PORTUA, S.A.
PUERTO DEPORTIVO EL ABRA-GETXO, S.A.



Muelle de Arriluze, Nº 1 - 1º Izda. - 48990 Getxo - Bizkaia - Tel. 944911354

urtebeteko kontratua dela aintzat hartuz, kontratazio hau SPKL-aren zehaztapenen menpe jartzea ez da beharrezko ikusten, haien balio estimatua 15.000 + BEZ baino gutxiagokoak diren kontratuei dagozkien zehaztasunak salbuespen.

- **Lotura bereziko Aholkularitza lanak:**

- **Aholkularitza juridikoa:** Barne aholkularitza legala eta jurisdikzio anitzen aurreko legezko ordezkartza, hala nola exijitutako konfidantza eta konfidentzialtasun harremana barne hartzen dituen zerbitzu prestazio honen lotura berezia kontuan izanik, zerbitzu honen kontratazioa haien balioa 15.000 + BEZ baino gutxiagokoa den kontratuen zehaztapenen menpe geratzen dela erabakitzen da. Egungo kontratua eskarizkoa da eta ordu eta lekualdatze zehatzen zenbatekoaren arabera fakturatzen da.
- **Aholkularitza ekonomiko eta lanekoa:** Aholkularitza ekonomiko, kontable, fiskala eta lan-aholkularitza, hala nola, exijitutako konfidantza eta konfidentzialtasun harremana barne hartzen dituen zerbitzu prestazio honen lotura berezia kontuan izanik, zerbitzu honen kontratazioa haien balioa 15.000 + BEZ baino gutxiagokoa den kontratuen zehaztapenen menpe geratzen dela erabakitzen da.

A. KANPO UTZITAKO HORNIKUNTZEN KONTRATUAK

- **Hornigaiak (bulegoa):**

- **Energia elektrikoa:** Hornitzaile eskuragai Iberdrola clientes S.A.U. Konpainia dela aintzat hartuz, hala nola Bilboko Portu Agintaritzaren baimenpean, sozietatearen bulegoaren kokapenaren baldintza bereziak eta urteko 960 euro + BEZ zenbatekoa gainditzen ez duela eta 4 urtetan 5.000 euro + BEZ baino gutxiagokoa dela kontuan hartuz, kontratazio hau SPKL-aren zehaztapenen menpe jartzea ez da beharrezko ikusten, haien balio estimatua 15.000 + BEZ baino gutxiagokoak diren kontratuei dagozkien zehaztasunak salbuespen.
- **Gas energia:** Hornitzaile eskuragarri EDP comercializadora S.A.U. Dela aintzat hartuz eta hornikuntza 70Kw baino gutxiagoko galdara bakarrarentzat dela, hala nola, Bilboko Portu Agintaritzaren baimenpean, sozietatearen bulegoaren kokapenaren baldintza bereziak eta urteko zenbatekoa 1.800 euro + BEZ dela kontuan hartuz, kontratazio hau SPKL-aren zehaztapenen menpe jartzea ez da beharrezko ikusten, haien balio estimatua 15.000 + BEZ baino gutxiagokoak diren kontratuei dagozkien zehaztasunak salbuespen.
- **Ur edangarria:** Hornitzaile eskuragarri Bilbao Bizkaia Ur Patzuergoa dela aintzat hartuz, hala nola, Bilboko Portu Agintaritzaren baimenpean, sozietatearen bulegoaren kokapenaren baldintza bereziak eta urteko 400 euro + BEZ zenbatekoa gainditzen ez duela eta 4 urtetan 5.000 euro + BEZ baino gutxiagokoa dela kontuan hartuz, kontratazio hau SPKL-aren zehaztapenen menpe jartzea ez da beharrezko ikusten, haien balio estimatua 15.000 + BEZ baino gutxiagokoak diren kontratuei dagozkien zehaztasunak salbuespen.



EL ABRA-GETXO KIROL PORTUA, S.A.
PUERTO DEPORTIVO EL ABRA-GETXO, S.A.



Muelle de Arriluze, Nº 1 - 1º Izda. - 48990 Getxo - Bizkaia - Tel. 944911354

- **Hornigaiak (materiala):**

- **Material suntsikorra:** Aurrekontutik bideratuako urteko zenbatekoa (bulekogo gastuak, 2.000 euro + BEZ) kontuan hartuz eta material suntsikor hori eskariaren araberakoa dela, kontratazio hau SPKL-aren zehaztapenen menpe jartzea ez da beharrezko ikusten, haien balio estimatua 15.000 + BEZ baino gutxiagokoak diren kontratuei dagozkien zehaztasunak salbuespen.
- **Portuaren promozio-kontzeptuan jasotako beste batzuk (garaikurrak):** Aurrekontutik honetara bideratutako urteko zenbatekoa (Beste gastu batzuk, 5.000 euro + BEZ) kontuan hartuz eta promozio kontzeptu horrek izaera berezia duela kontuan hartuz (sozietatearen bulegoek kokaleku duten eraikinaren irudia duten garaikur korporatiboak) sozietateri garrantzia eman eta Getxo Kirol Portuan ospatzen diren izaera sozial eta kirolarekin loturiko ekitaldien promozio ekintzak errazteko balio duenez gero, urteko 800 euro + BEZ inguruko zenbatekoarekin, kontratazio hau SPKL-aren zehaztapenen menpe jartzea ez da beharrezko ikusten, haien balio estimatua 15.000 + BEZ baino gutxiagokoak diren kontratuei dagozkien zehaztasunak salbuespen.